

PETROLIOAREN PREZIOA, GORANTZ. Beldurra darie petrolio merkatuei egunotan. Gerraren oihartzunez gain, Venezuelako grebaren ondorioak nabaritzen dira, batez ere Estatu Batuetan, hango merkatuko laugarren hornitzailea baita Venezuela.



ANDREW ALVAREZ / EPA

Venezuelako greba abenduaren 2an hasi zen eta egunean bi milioi upel pasa ekoizteari utzi dio munduko bosgarren ekoizleak.

BESTE MERKATUAK

Urrea, inbertsiogileen babeslekua

Urre beltza ere deitu ohi zaio petrolioari, baina ez da garestitu den gai bakarra. Ohiko urrea, betikoa, aspaldiko prezio maila garestiena iristen ari da azkenaldian. Eta kasu honetan ere gerraren oihartzunak zerikusirik badu.

Ostiralean, urre ontza baten (28,7 gramo) otsaileko kontratua 351,6 dolarretan salerosi zen New Yorkeko merkatuan. Urtebetean %25 inguru egin du gora prezioak. Bost urte eta erdi dira urrea muga horretara ez zela ailegatzeko.

Azken batean, motelaldien, teknologia sektoreko krisiaren eta konfiantzarik ezaren ondorioz, bi urte jarraian daramate beherantz burtsek, eta inbertsio segururik egiteko ia ez da sektorerik geratzen. Bestalde, gerra geroz eta gertuago dago eta inbertsiogileek badakite leku guztietan egingo duela euria. Kasuotan, urrea bihurtzen da inbertsiogileen aterki eta babesleku.

Brent petrolio upelak 30 dolarreko muga iragan du jada

Hilabete eta erdian upela zazpi dolar garestitu da, Venezuelako egoeraren ondorioz eta Iraken aurkako erasoaren eraginen beldur; LPEE gehiago ekoizteko prest dago

Erredakzioa | DONOSTIA

Ameriketako Estatu Batuek Iraki erasotzeko arriskua handitzen doan heinean, petrolio upelaren prezioak erritmo berean gorantz jarraitzen du nazioarteko merkatuetan. Azken 45 egunetan, Europan erreferentzia nagusi den Brent upela zazpi dolar garestitu da Londresko merkatuan eta 30 dolarreko muga gainditu du aste honetan. Joera gorantz jarraitzekoa da.

Urteko lehen egunetan Brent upela %4,6 garestitu da Londresko merkatuan eta antzeko gauza gertatu da New Yorken Texas upelarekin, %5,9 egin baitu gora. Upel hori 33,08 dolarretan dago. 2000. urteko otsailaz geroztik ez zen ailegatu petrolio upela maila horretara.

Nahiz eta gerra mehatxuak eragin zuzena duen igoera horretan, AEBetako erretserbak



gehiago murriztuko diren beldur dira merkatuak.

Energiaren Informazio Agentziaren arabera, AEBen erretserbak 277,6 milioi upelekoak dira, iaz baino 33,7 milioi gutxiago. «Argi eta garbi, Venezuelako petrolio galerak AEBetako merkatuari eragin dio», zioen EIAk, orain gutxi. Zergatik?

AEBetako merkatuaren lau-

garren hornitzailea da Venezuela eta abenduaren 2tik greban dago hango petrolio industria. Normalean, Hego Amerikako herrialdeak 2,8 milioi upel ekoizten zituen egunero, baina orain, gutxienez, egunean bi milioi upel ekoizteari utzi dio. Egoerak eragin zuzena du bai Estatu Batuetako biltegieta bai nazioarteko merkatuetan.

Hugo Chavez Venezuelako

presidentek ostegunetan, Brasilian, iragarri zuen industria «aste gutxi batzuetan» normaltasunera itzuliko dela. Hala ere, adituek uste dute krisiari behalako konponbide bat ematen bazaio ere Venezuelak asteak beharko dituela berriro ere ia hiru milioi upeleko produktora itzultzeko, greba aurretik egiten zuen bezala.

Eta negua hasi berri da ipar hemisferioan, kontsumo handieneko garaia. Merkatuak kezkatu dira, Artikoko hotzaldi batek gehiago murriztu ditzakeelako erretserbak.

Iraki eraso eginez gero gerrak petrolio hornikuntzan izango duen eragina da merkatuen beste amesgaiztoa. George Bush AEBetako presidentearen hitzek ez dute laguntzen petrolio merkatuetako salerosleak lasaitzen. «Erregimen irakiarra mehatxu bat da AEBentzat» eta

«Saddam Husseinen Azken Epaketaren eguna iristear da» izan dira Bushen azken adierazpenetako batzuk.

LPEE, gehiago ekoizteko prest

Lurralde Petrolio Esportzaileen Erakundea saiatu da egunotan merkatuak lasaitzen. Datoren urtarrilaren 15ean biltzeak dira *cartel*-eko herrialde kideak, eta petrolio upelak 28 dolarretik gora jarraituz gero eguneko 500.000 upel gehiago ekoizteko prest daude.

Erakundeak 2000. urteko martxoan onartu zuen bere upelaren salneurriak 20 egun jarraian 22 eta 28 dolar arteko muga gaindituko balu, hala gora nola behera, ekoizpena aldatuko lukeela prezioak tarte horretara itzul daitezkeen. «Horri esker, 500.000 upel gehiago ekoizteko ditzakegu eguneko. Baina nahikoa izango al da merkatuak lasaitzeko? Gai hori ministroek erabaki beharko dute», zioen LPEEko kide batek. Eta hala egingen dute hilaren 15ean.